

AIARALDEA *hemen*



ZABALEKO ETA LAMUZA:
"Eusko Jaurlaritzaren
zaurgarritasun indizea klasista eta
arrazista da" 8-9 or.

AIARALDEA JAIETAN:
San Prudentzio, San Jose
eta Otxomaio jaiei buruzko
gehigarri berezia



**“Zubiak
sortzeko
gaitasuna
du zinemak”**



MAIATZAK 5 - 14

ESKU PILOTA PARTIDAK · AURRESKU ETA FANDANGO LEHIAKETA · MOZORRO LEHIAKETA
BURBUILAK · GWAYA REGGAE · ESNE BELTZA · DUPLA · AKERBELTZ · DJ KUL
BIGANTXAK · PUTXERA LEHIAKETA · PAELLA ETA TORTILLA TXAPELKETA
PATXI PEREZ · TABERNA IBILTARIA · TIO TERONEN SEMEAK
ORQUESTA LA RESISTENCIA · ANTZO ETA PANTXA PAILASOAK

ETA ASKOZ GEHIAGO!



INFORMAZIO +



elkarrizketa



“Nik egiten ditudan istorioek lehendabizi ni hunkitu naute”

IBILBIDE LUZE BEZAIN OPARO BATEN OSTEAN ZINEMA ARETOETARA IRITSI DA **ESTI URRESOLA**ren (Audio, 1984) ‘20.000 ESPECIES DE ABEJAS’ FILMA. AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN ELKARTU DA ZUZENDARI LAUDIOARRA.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Seaz

Denbora luze itxaron ostean, aste honetan estreinatuko da 20.000 especies de abejas filma. Aurretik sari asko jaso dituzu, horrek lasaitasuna ematen du estreinaldiari begria?

Benoa, lasaitasuna ez nuke esango. Azkenean, estreinaldiari begira, publikoa da epai-mahairik handiena, eta hor sentibilitate, sentipen eta posizionamendu oso ezberdinak egongo dira. Ederra izango da jakitea publikoak nola jasotzen duen pelikula.

Egia da, sariak barnean ematen dizutela berotasun edo poztasun bat. Azken finean, egingdako lanari aitortza dira. Are gehiago kasu honetan, non aktoreei oso sari bereziak eman dizkieten. Ez bakarrik Sofia Oterori Berlinen, hori denok ezagutzen dugu. Patricia Lopez Arnaizi ere saria eman diote Malagan. Eta, azkena, Hong Kongen jasotakoa, non saria akotze guztien artean banatu zuten. Horrek asko hunkitu ninduen. Hori bada osatzea akotze guztien lana. Izan ere aktore baten lana ez da ulertzen basteen lana kontuan hartu gabe. Oso bidezkoa iruditu zitzaidan.

Sari hauek ez dira kasualitateak izan. Izan ere, aureko film laburretan ere, argi geratu da castinga asko lantzen duzula, bai helduekin baita gazteenekin ere. Zein neurritan uste duzu eragin duela antzelearen artean sortutako giroak?

Niretzat zuzentzea komunikazio jardura bat da. Zuk idatzi dezakezu testu bat, baina testu hori interpretatzeko hamaika modu daude. Lerro bat irakurtzeko hamaika modu daude. Nire ardura da adieraztea nondik dauden esanda lerro horiek, zergatik jokatzen duen modu batera edo bestera pertsonaia batek, zer harreman duen beste pertsonaiekiko... Hori guztia komunikazio ariketa bat da haiekin. Komunikazioa niretzat elkarbanatze bat da, ez da bakarrik nik adierazten dudana, baizik eta besteak nik esandakoari gehitzeko duen hori jasotzea ere. Hor sortzen den elkarrizketa eta harreman hori da gakoa.

Profesionalak ez diren aktoreekin lan egiten duzuenan, *Cuerdas*-en esaterako, beste modu batean eraiki behar duzu

harreman hori. Denbora gehiago eskatzen du, eta denbora horretan harremanak are gehiago sendotzen eta garatzen dira. Alderdi humanoa jartzen da erdigunean, eta horrek eragiten du lanean giro on bat sortzea. Horrela lan egiten jarraitzea gustatuko litzaidake.

Pelikula garatzeko elkarlan hori, aktoreekin ez ezik, adinez txikiko diren pertsona transexualaekin eta euren familiekin ere egon da. Nolakoa izan da prozesu hori? Zein neurritan eragin du filman?

Neurri handi batean eragin du. Nire ustez, honakoa bada ardura handiz jorratu beharrekoko gai bat, eta, horretarako, ahalik eta gehien jarri behar nintzen kontaktuan bizipen horiek izandako familiekin. Orduan gerturatu nintzen Naizen elkartera, eta haiek jarri ninduten 2018an hogeitabat familiarekin harremanetan. Hortik abiatuta, dokumentazio eta elkarrizketa prozesu luze-luze bati ekin nion. Elkarrizketa horietatik abiatu nintzen gidoiaren lehenengo bertsioak idaztera. Gogoratzen dut 2020an ohartu nintzela gizarte geroz eta gehiago eraldatuz zihoala ohartu nintzela, eta haur transexualen inguruko geroz eta informazio gehiago zegoela. Hori dela eta berriro ekin nion elkarrizketa eta dokumentazio prozesuari, Naizen elkartera batu ziren familia berriekin, ulertuta hauek informazio eta tresna gehiago izango zituztela. Ziurtatu nahi nuen pelikulak oso lotura estua izaten jarraituko zuela errealitatearekin. Ziurtatzeko ari nintzela errealitateetik gertu zegoen zerbait egiten.

Prozesu horretan harreman ederrak sortu dira. Zuk pentsa zure etxera ezezagun bat datorrela galdetzer nolakoa izan den zure bizitzako alderdi oso intimo bat; familiekin eskuzabaltasun handiarekin kontaktu dizkidate gauza asko.

Zure pelikulek beti izan dute begirada soziala. Film hau ‘Trans-legearen’ eztabaidaren erdian dator, gainera. Zein neurritan zara eztabaidaren lortza horietan sartzearen aldekoa?

Nik egiten ditudan istorioek lehendabizi ni hunkitu naute. *Engantxatu* egiten naute edo zerbiat entzun dudalako, edo pertsona bat ezagutu dudalako, edo hitzaldi bat entzun dudala-

elkarrizketa

ko... ideia berri batekin *bibratzen* dudalako nik neuk lehendabizi. Horrek mugitzen nau prozesuan sartzerara. Egia da, ikusle moduan eskertzen dudala zine mota bat, errealitatearekin eta bertako problematikekin atxikimendua erakusten duen zinemagintzatik gertu sentitzen naiz egile bezala. Eskertzen dut pelikula batek begien aurrean jartzen didanean urruna den errealitate bat, eta enpatizatzen dudanean pertsonai batekin naiz eta nik ez bizi bere dilemak. Uste dut zinemak baduela zubiak sortzeko gaitasuna, zu eta oso urruneko pertsona edo problematiken artean. Zienmak gerturatu gaitzake.

Gazte zara, baina honezkero Berlingalen, Hong Kongeko Nazioarteko Jaialdian, Goya sarietan ... egon zara gehiagotan ere. Nolakoa da zinematzaile amorratua izatetik protagonistia izatera igarotzea?

“Asko hunkitu ninduen Hong Kongen jasotako sariak, non aktore guztien lana aitortu zuten”

Eta nola eragiten dizu zuri bidaia meteoriko honek?

Meteorikoa bai, azken bi urteetan ikusten hasi direlako hainbat eta hainbat urteetan egindako lanen fruituak. Nik 2011an erabaki nuen baneukala amets bat eta saiatu nahi nuela istorioak kontatzen. Nire konfort espazioa deitzen duten hori utzi nuen atzean: nire lana, nire herria... Eta nire aldeko apustu hori egitera mugitu nintzen Bartzelonara. Berdin zen txarto edo ondo atera baina saiatu nahi nuen. 27 urte nituen, eta ordutik aurrera ametsa oso poliki-poliki garatzen joan dela, baina bidean izugarritzko uko egitea eta sakrifizioak egin behar izan ditut. Errezena amore ematea da. Emaitzarik gabeko bailara oso luzeetatik igaro behar da. Horrelako prozesuetan asko inbertitu behar da, aztertu ea etekinik lortzen duzun edo ez, eta bitartean asmatu lan bat ahalbidetuko dizuna zure proiektuarekin aurrera jarraitu ahal izatea. Jardun osoko lan batek galarazi egingo zidan nire ametsa eraikitzen jarraitzea. Oreak hori mantentzea izan da zailena azken hamar urte hauetan.

“Uste dut zinemak baduela zubiak sortzeko gaitasuna, zu eta oso urruneko pertsona edo problematiken artean”

Zeintzuk izan dira uko egite horiek?

Beno, errenuntziatuko bat izan da soldata egonkor eta bizimodu eroso bat izatearena. Proiektu pertsonal bat edota amatasuna garatzeari uko egitea. Ez dakit zenbat aldiz joan diren nire lagunak oporretan eta ni ez. Mota guztietako elkarretaratzeetara ezin joatea zu dosierak eta lanak egiten ari zarelako.

Horrelako gauza asko eta asko egon dira, baina horiek normalena ez dira ikusten. Bakarrik nabaritzen da “arrakasta” deitzen diogun hori agertzen denean. Nik esango nuke zinemagintzan irautea dela saria eta arrakasta bera.



Esti Urresolaren filmaren aurreestrenaldiak erabateko arrakasta izan zuen apirilaren 18an Bilbon. Aiaraldea.eus

herriz herri

Aiaraldea

Txostenak jasotzen du gorrotozko erasoak pairatu dituzten pertsonetako bat Laudiokoa dela eta beste bat Amurriokoa, baina ez du zehazten harremanik duten eskualdean jazotako kasuekin. EAEn, arrazakeria eta xenofobiari lotutako kasuak dira nagusi eta %53ko igoera egon da oro har.

Hiru gorroto delitu erregistratu ditu Ertzaintzak 2022an Aiaraldean, bat Laudion eta bi Orozkon



2021eko abuztuan Amurrioren jazotako eraso homofoboa salatzen elkarretaratzea. Aiaraldea.eus

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Hiru gorroto delitu erregistratu zituen Ertzaintzak iaz Aiaraldean. Hala jasotzen du poliziak atzo goizean plazaratutako 2022ko memoriak. Kasu horietako bat Laudion jazo zen eta beste biak, aldiz, Orozkon. 2021ean, bestalde, mota horretako lau delituen berri jaso zuen poliziak eskualdean.

Horrez gain, txostenak adierazten du gorroto erasoak pairatu dituzten pertsonetako bat Laudiokoa dela eta beste bat Amurriokoa. Hala ere, dokumentuak ez du zehazten harremanik dagoen bi pertsona horien eta eskualdean erregistratutako hiru delituen artean.

Aurreko urteetan bezala, Er-

tzaintzakez du zehaztu ere udalerrietako delituen nolokotasuna, "herri txikietan delitu horiek jasan dituzten pertsonen biktimitazio bikoitza jasan dezaketelako". Gauzak hala, ezer gutxi gehiago esan daiteke eskualdean jazotako kasuen inguruan.

%53ko igoera urtebetean

Arabari edota Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, aldiz, txostenak datu esanguratsu ugari jasotzen ditu. 438 gorroto-gertakari jaso dituzte 2022ko memorian. Ia guztiak (435) dira gorroto-delituak.

Azken hirurak, aldiz, "gorroto izaerako arau-hauste administratibo" gisa sailkatu ditu poliziak. "Aztertu diren 435 delituetatik 9tan diskriminazio anizkoitzak erregistratu ziren; hori dela

eta, kolektibo babestuen aurka delituak guztira 444 izan ziren, eta kopuru hori 2022an erregistratutako gorroto-delituen abaino handiagoa da", azaldu du Ertzaintzak.

2016an ekin zion poliziak urteko txostena egiteari, eta orduetik hona delituen kopurua "esponentzialki igo" dela nabarmendu dute, batez ere, 2021etik 2022ra. Bi urte horien artean %53 hazi da delitu kopurua.

Ertzaintzaren aburuz, bi arrazoi daude ugaritze horren atzean: "Alde batetik, gorroto-delituak ugaritu izanari egotz dakiok, bainabaita gizartearen kontzientziario handiagoari eta tolerantzia txikiagoari, poliziaren eraginkortasun handiagoari, legegintzaren bilakaerari eta beste hainbat arrazoi ere".

Arrazakeria eta xenofobia

Delitu motei dagokionez, gehienak arrazakeriari eta xenofobiari lotutakoak izan direla azpimarratu dute. Mota horretako 231 kasu erregistratu dituzte guztira, % 52, 2021ean baino % 42,6 gehiago. Sexu-orientazio eta -identitateagatik egindako erasoak daude bigarren postuan, 96 kasurekin (2021ean baino %31,5 gehiago). Generoari lotutako kasuak, aldiz, 68 izan ziren iaz (%15,32).

Azken urteetako kasuak

2021ean 4 kasu erregistratu zituen Ertzaintzak eskualdean. Horien artean dago Amurrioren urte horretako abuztuan jazotako eraso homofoboa.

2020an, aldiz, 7 kasu erregistratu ziren Aiaraldean. Orduan ere, Amurrioren izan ziren gehienak, 5

guztira. Aiaran eta Laudion, aldiz, bana erregistratu zuten. Aurreko urteetan ere egon dira beste hainbat kasu. Artziniegako jailetan bi eraso lesbofobo salatuzituzten 2019an. Bi urte lehenago, aldiz, CD Orduñak eta Indartsu Klubak adierazpen bateratua argitaratu zuten, lehen taldeko jokalariek partida batean jasotako irain eta mehatxu homofobo, arrazista eta xenofoboak zirela eta.

2019ko urtarrilean oso bestelako gertakaria jazo zen Lezaman: Polizia Nazional ohi bat atxilotu zuten, Ezker Abertzaleko familia baten etxearen aurka tiro egitea egotzita. Hainbat mobilizazio eginez, gertatutakoaren atzean gorrotozko delitua zegoela nabarmentzeko, bainabermerikordaindu gabe aske geratu zen atxilotua, eta ez zioten delitu hori egotzi.

Okondo

2 milioi euro baino gehiago gastatzea aurreikusi du Udalak kirol azpiegitura berrietan



Kiroldegi berria eraiki ez ezik, udal igerilekuetan ere inbertsioa egin nahi dute. Aiaraldea.eus

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Okondoko Udalak espero du udazkenean lanak hastea udal igerilekuetan eta aurrerago herriko kirol azpiegitura berriak eraikitzea.

Zehazki, kiroldegi berria egin nahi dute eta, horretarako, bi diru iturri izango ditu tokiko erakundeak. Alde batetik, dirulaguntza bat Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planetik etorriko da, 575.000 euro gutzira. Bigarrena Aiaralderako Plan Estrategikoaren barruan dago (1.225.379 euro). Guztira, 1.800.379 euroko ekarpenak

jasotzea espero dute. Kiroldegi berriaren diseinua bi bloke berritan banatuta egongo da. Horietako batek gimnasioa izango du, rokodromoa, aldagelak (komunak eta erabilera anitzeko gelak barne) eta baita kirol-ekipamendua gordetzeko biltegi bat ere. Gune horiek guztiek isolamendua, argia, ura eta berogailua izango dituzte, eta igerilekuetatik gertuago egongo dira.

Beste blokea, pixka bat altuagoa, saskibaloia kantxatik eta futbito zelatik hurbilago egongo da, eta padel pista hartuko du.

Baina, horrez gain, udal igerilekuetan esku hartuko dute.

Horregatik, Udalak beste dirulaguntza publiko batzuk ere lortu ditu, 424.299 euro ingurukoak, eta horiei esker, 494.239 euroko guztizko kostuari aurre egin ahal izango dio.

Alde batetik, igerilekuertaina eraikiko dute, eta horiek haur txikienezako zerbitzua hobetuko du. Izan ere, txikia ez da nahikoa 3 urtetik aurrera, eta handia sakonegia da kolektibo horrentzat.

Bestalde, tabernari dagokionez, eraikin berria atonduko dute eta zerbitzua handitu sukalde hornitu bat eta menuak eskaintzeko mahaia instalatuta.

Aiara

Olabezargo bizilagunek ezezkoa eman diote plaka fotovoltaikoak herriko lursail batean jarri nahi zituen proiektuari



Lursail publiko batean jarri nahi zituzten plakak. Aiaraldea.eus

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Ezezkoa eman zioten Olabezargo bizilagunek Energiaren Euskal Erakundeak eta Krean enpresak Ekian egitasmoaren barruan Olabazarren instalatu nahi zuten eguzki-plaken proiektuari. Egitasmoa Olabezargo lursail publiko batean jarri nahi zuten erakunde sustatzaileek, herriko hiru ganadutegi abeltzaintzarako erabiltzen duten eremuetako batean. Energiaren Euskal Erakundeak eta Krean enpresak sortutako Ekian egitasmoak sustatu du proiektua, eta 15 hektareako lursail batekin abiatu nahi zuten.

Proiektu fotovoltaikoaren sustatzaileek martxoan egin zuten bilera Olabazarreko bizilagunekin, egitasmoaren nondik norakoak aurkezteko. Giro nahasian gauzatu zuten bi-

lera; izan ere, zalantza ugari geratu ziren argitzeke, Irene Robleda, Aina Gochi eta Asier Bolivar Olabazarreko bizilagunek Aiaraldea Komunikabideari azaldu ziotenez.

Azken asteetako giro nahasiaren ostean, iragan apirilaren 4an bozkatu zuten bizilagunek proiektua herrian egitea onartu edo ez. Ezezkoaren aldeko botoak izan zirena gusi bozketan. Bertan parte hartu zuten 26 bizilagunek proiektuaren kontra egin zuten, eta lau lagun abstentitu egin ziren.

Ikusteke dago orain Energiaren Euskal Erakundeak eta Krean enpresak hartzen duten erabakia. Herriarrek arriskua ikusten dute bozketan erabakitakoa kolokan jartzeko. "Tapia Legea deritzon lege berriarekin, horrelako makro-proiektuek aurrera egin dezakete tokiko erakundeak aurka agertu arren", azaldu zuen Robledak.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tatik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA**

**+2.000 bezerok gugan
dute konfiantza**

945 712 822
bertako.eus



herriz herri

Artziniega

Artziniegako saneamendu sistemak hobetzeko proiektuak abian jarri ditu URA agentziak

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Artziniegako Udalak iragarri duenez, URA Agentziak bi proiektu ditu mahai-gainean udalerrian, hondakin-uren saneamendu sistema hobetzeko helburuarekin. Joseba Vivanco alkateak jakinarazi duenez, bilera izan du berriki URA Agentziako arduradunekin, egitasmoen nondik norakoak gertutik ezagutzeko. Gordeliz eta Artziniegako herrigunea lotuko dituen saneamendu sistema da

proiektu horietako bat. URA agentziak proiektua idazteko lizitazioa abiatu berri du, 100.000 euroko aurrekontuarekin. Kolektoreak 2,5 kilometroko luzera izango du. Horri esker Gordelizeko hondakin-urak Artziniegako saneamendu-sistemara bideratu ahalko dira. "Kolektore berriaren trazadura aprobeztatuz, Artziniegako urtegitik datorren hornidura-hodiaren zati bat berritzea eta ordeztua aurreikusi beharko da proiektuan, Gordelizetik Artziniegako Edateko Ura Tratatzeko Plantara

doan tartean", azaldu dute agentziako arduradunek.

Gordelizeko kolektorearen proiektuak osagarrituko du gaur gaurkoz idazten ari diren Artziniegako udalerriko hondakin-urak Gueñeseko HUARA bideratzeko proiektua. Udalerriko hondakin-urak kudeatzeko lanen hasierako fasea da. Horretarako, Artziniegako saneamenduaren alternatibak aztertzen ari dira, 8 hilabeteko iraupena eta 93.970 euroko aurrekontua duen lizitazioaren barruan.

babestutako edukia

Etxaurren Haurreskola

Haurrei euren mugimendu propioak garatzen uzten dien haurreskola

Aiarako Ibaguen auzoan (Zuhatza) kokatua dago Etxaurren haurreskola, txikia eta familiarra da. Bi gela ditu eta bere hezkuntza proiektu propioa du. Haurrek mugimendu librearen bitartez, beraien garapen naturala sustatzea eta errespetatzea dute helburu hezitzaileek. Modu horretan,

helduek "bidelagun" funtzioa hartzen dute heziketa prozesuan zehar, haurrei euren kabuz egin dezaketen egiten utziz, behar den denbora emanaz... "Haurraren erritmoa eta ezetza" errespetatzen dituzte horrela, "haurrak bere mugimendua gorputzean bizitzeko eta esperimentatuta-

koa barneratuko du", azaldu dute Etxaurren Haurreskolako hezitzaileek. Apirilaren 24tik maiatzaren 16ra luzatuko da haurreskolan matrikulatzeko epea. Horrez gain, informazio gehiago nahi izanez gero: haurreskolak.eus webgunera sartu edo 945399727 telefono zenbakira deitu.

Ekainaren 11n izango da 'La Karpy' martxa

Testua
Txabi Alvarado Bañares

'La Karpy' bizikleta klasikoentzako ibilaldiak badu data. Ekainaren 11n egingo da ekimenaren aurtengo edizioa. Parte hartzaileak goizeko bederatzieta abiatuko dira Artziniega Museotik, eta 46 kilometroko ibilbidea egin beharko dute orotara.

Horrez gain, antolatzaileek autobusa jarriko dute martxa jarraitu nahi dutenentzat. Bisita gidatua ere egingo dute udalerriko alde zaharrean barrena, eta bazkariarekin emango diote amaiera egunari.

Otorduaren prezioa 12 eurokoa izango da eta bildutako dirua ekitaldiaren antolakuntza finantzatzera bideratuko da.

Izen ematea irekita

Martxarako izen-ematea, aldez, doakoa izango da, baina antolatzaileek "konpromisoa" eskatu diote inskripzioa betetzen dutenei. Baldintza bakarra bete beharko dute parte hartzaileek: 1987. baino lehenagoko bizikleta baliatzea.

Erabiltzen duten arropa ere zaharra izan beharko da eta, ahal den neurrian, imitazioak ekiditea eskatu dute.



Mikel Antza

ARROZ UREZ
LIBURU AURKEZPENA ETA SOLASALDIA

Maiatzak

12 OSTIRALA
19:30

Sarrera libre eta doakoa



Solasaldia baino lehen liburua irakurri nahi baduzu, LIBURUA EROSTEKO AUKERA DAGO FAKTORIAN: 16 € Astelehenetik ostiralera: 16.30-20.30 Larunbatetan: 10.30-14.00



www.haurreskolak.eus
945 39 97 27

ETXAURREN HAURRESKOLA

Matrikulazio epea zabalik!
apirilaren 24tik maiatzaren 16ra



Ibaguen auzoa 1, ZUHATZA

KULTURA SORBEI FAKTORIA

www.faktoria.eus
faktoria@aiaraldea.eus
988 642 942
Errotari kalea 4-8, Laudio (Araba)

Laudio

Laudioaldeak Batxilergoa eskaintzeari utziko dio datorren ikasturtean



Laudioalde 2013. urtean igaro zen udal ikastetxea izatetik Hezkuntza Sailaren menpeko zentro izatera. [Aiaraldea.eus](#)

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Batxilergoa eskaintzeari utziko dio Laudioalde Lanbide Heziketa ikastetxeak datorren ikasturtean. Bi ikasturte baliatuko ditu horretarako. 2023-2024 ikasturtean 1. maila eskaintzeari utziko dio, baina 2. mailan dauden ikasleek bertan amaitu ahalko dituzte ikasketak. 2024ko irailan, aldiz, ez du hezkuntza ziklo horren maila bat bera ere eskainiko.

Modu horretan, Laudioaldek 100 metro eskasetara dagoen Laudio BHI Institutua bilakatu da udalerrian Batxilergoa eskainiko duen zentro publiko ba-

Laudio Institutua bilakatuko da udalerrian hezkuntza ziklo hori eskainiko duen zentro publiko bakarra

karra. Aiaraldea Komunikabideak jakin izan duenez, Institutuko zuzendaritzak duela bi hilabete izan zuen albistearen berri, eta espazioa moldatzeko lanetan ari da, matrikulazioek gora egin dezaketela aurreikusita.

Bi Batxilergo eskaintzen ditu Laudioaldeak: Gizarte Zientzia eta Zientzia eta Teknologiarena. Institutuan ere eskaintzen dira bi ikasketak ziklo horiek, baina hirugarren bat ere badago: Arte Batxilergoa.

Horrez gain, aipatzekoa da Institutuak Lanbide Heziketako bi ziklo ere eskaintzen dituela Ellakur dagoen Gregorio Marañon hezkuntza zentroan: Estetikarena eta Ileapainketarena.

Iberiar penintsulako beira labe handiena eraiki du Vidralak Portugalen, ia 100 milioi euroko inbertsioa eginda



Vidralaren Laudioko lantegia, artxibo irudi batean. [Aiaraldea.eus](#)

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Ia 100 milioi euro inbertitu ditu Vidralak Portugalgo Marinha Grande udalerrian duen Gallo Vidrio lantegian. Beira labe bat atondu du multinazionalak bertan, "penintsulako handiena".

Azpiegitura berri horren bidez, lantegiaren ekoizpen gaitasuna %50 handitzea aurreikusi du enpresak, baita CO2 emisioak nabarmen jaistea ere.

Prensa-oharrean nabarmendu dutenez, "teknologia berriena" du labeak, eta digitalizazio eta automatizazio gradu handia ere du. "Ekoizpen-lerro berriek makina malguak dituzte, eta tamaina eta forma desberdinetako ontziak egin ditzakete", azaldu dute Vidralako ardura-dunek. Euren iritziak, "azken belaunaldiko ekoizpen eta ikuskapentek-

nologia horrek guztiak" ahalbidetu du produktuek "kalitate handia" izatea eta bezeroei "zerbitzu hobea" eman ahal izatea.

Vidralak azaldu du labearen erakuntza enpresaren Portugalgo garapen industrialeko plan estrategikoaren barruan kokatzen dela, hainbat urtez luzatuko dena. Marinha Grandeko bi lantegiak modernizatzea aurreikusten du plan horrek, beste hainbat jarduerarekin batera: biltegi berriak eraikitzea, ibilgailu gehiago eskuratzea eta energia elektriko berriztagarria sortzeko azpiegitura propioak atontzea.

Modernizazio hori Laudioko lantegian ere egin nahi du Vidralak, baina ez langileen mesedetan. Enpresak aurreikusi du 90 behargin gutxiago beharko dituela 2025erako, azpiegituren berritzearen ondorioz.

SOLAR TRES60



ZEURE ENERJIA PROPIOA



AURREZTU %70EAN

ZURE FAKTURA ELEKTRIKOA

EGUZKI-ENERJIA, FOTOVOLTAIKOA ETA EFIZIENTZIA ENERJETIKOA

- Produktu onenekin egiten duqu lan
- Aurrekontuak 24 orduetan
- Azpikontrataziorik gabe
- Muntaketa azkarra (2-4 aste)
- Egunero dirulaquntzen kudeaketa

La Barrena industrialdea, TUTERA (Nafarroa) 644 601 878 www.solartres60.com info@solartres60.com

Etkez etxeko zerbitzua

0km produktuak

Garaiko frutak eta barazkiak

Egunero Iza okindegiko ogia

Neurrira egindako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 Landako Kalea 1 Amurrio @frutadenda_selene

erreportajea

“Umeak ezin dira kromoak bezala aldatu”



Lamuza eta Zabaleko Eskoletako gurasoak dira Esti Garmendia eta Monica Miguelez, hurrenez hurren. aiaraldea.eus

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurrematrikulazio kanpainan abian jarritako 'zaugarritasun indizeak' gatazkak piztu ditu Lamuza eta Zabaleko eskoletan. Hezkuntza zentro horietako bi gurasorekin bildu gara.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Aste mugituak izan dira azken hauek Monica Miguelez Garcia eta Esti Garmendia Santamariarentzat. Zabaleko Eskolako gurasoa da lehena eta bigarrena, aldiz, Lamuza Eskolako. Martxoaren 28an argitaratu zituen Eusko Jaurlaritzak aurrematrikulazioaren behin behinako zerrendak, eta orduan piztu zen gatazka Amurrio eta Laudioko bi zentro horietan.

Zabalekoko Guraso Elkarteak izan zen egoera salatzen lehena. “Guk 11 aurrematrikulazio jaso genituen guztira”, kontatu du Miguelezek. “11 familia horien artean Eusko Jaurlaritzak ebatzi zuen 3 familia ‘zaugarri’ zeudela eta horietako bat itunpeko ikastetxe batera, Amaurriera, bideratu zuen, familia horrek bere burua zaugarritzat ez duen arren”.

Antzeko zerbait gertatu zen Lamuza Ikastetxean, Garmendiak azaldu duenez: “9 aurrematrikula izan genituen eta horietako 2 zeuden ‘zaugarri’ moduan sailkatuta. Horregatik, haur horietako bat Laudio Ikastolara bideratzea erabaki dute, Lamuzan anai-arrebak dituen arren. Ez dugu ulertzen publikoa hautatzen duten familiak zergatik derrigortzen dituzten itupeko ikastetxetara joatera”.

Erreklamazioak aurkeztu dituzte, eta aurki jasoko dute erantzuna, bihar (osteguna) aterako baitira bahin betiko zerrendak. Baikor daude Lamuza Eskolako kasuari dagokionez, haurrak eskolan anai-arrebak ikasten izatea pisuzko argudioa delako. “Zabalekoko kasuan, aldiz, hezkuntza delegaritzatik jada aurreratu digute zaila izango dela hartutako erabakia deuseztatzea”.

Zaugarritasun indizea

EAJk, EH Bilduk, PSE-EEk eta Elkarrekin Podemosek sinatutako hezkuntza legearen aurreproiekturako akordioan jarri du Miguelezek gertatutakoaren jatorria. “Legea oraindik ez dago onartuta, baina Hezkuntza Sailak dagoeneko egin du planifikazio dekretu bat, eta bertan ezartzen dira ume kopuruari eta ‘zaugarritasun indizeari’ lotutako kontu guztiak”.

‘Zaugarritasun indizean’ dago arazoaren muina, bi gurasoen iritziz.

Hezkuntza Sailak galdetegi bat betearazi dio aurten aurrematrikulazioa egin duen familia bakoitzari, zaugarria den ala ez ebazteko. “Udalerriko batz bestekoa atera dute horrela, eta modu horretan ebatzi dute zentro bakoitzak zenbat ikasle zaugarri hartu ditzakeen gehien jota”. Baina, eginiko galde-tegiak ez du inongo “funts psiko-pedagogikorik”, Miguelezen ustez. “Etxean dituzun gauzak baloratzen dituzte: Netflix edo Amazon prime konturik dugun, zenbat bainugela dauden... ez dugu oso argi Eusko Jaurlaritzak nola egiten duen balorazioa orri bakar bateko galdetegia baliatuta”.

Harago joan da Garmendia. Lamuza Eskolako gurasoaren aburuz, planteamendu “arrazista eta klasista” da Hezkuntza Sailak plazartu duena eta, ondorioz, baita “oso iraingarria” ere. “Galdetegi horrek ahalbidetzen duena da etiketa bat jartzea eta ‘zaugarri’ sailkapena duten familiei ukatzea euren seme-alabentzako hezkuntza mota erabakitze eskubidea. Nire ustez, Eusko Jaurlaritzaren ikuspegia honakoa da: zaugarritasunak enbarru egiten digu eta, horregatik, kontsideratzen dugu txarra dela denak batera egotea. Hori berez arrazista da. Zergatik jakin behar dut nik familia batek ez duela telebistatik edo entziklopediarik etxean? Zer axola dit niri? Niretzako, nire alboan dagoena ni bezalako ama bat da, ni bezalako duintasunarekin. Ni ez naiz zaugarria eta Lamuza Eskolara nator, eta ez dut zertan jakin beste familiak zaugarriak diren edo ez, niretzat lagunak direlako, eta baita nire alabarentzat ere. Uste dut 300 familia direla guztira beste zentro batzuetara bideratu dituztenak. Gustatuko litzaidake jakitea familia horietatik zenbat diren etorkinak. Gizarte moduan hausnarketa bat egin beharko genuke horren inguruan”.

Segregazioaren aurka borrokatzea da ‘zaugarritasun indizearen’ helburua, baina hori “aitzakia bat” baino ez da, Miguelezen aburuz: “Benetan atzean dagoena da itunpeko ikastetxei mesede egitea eta hezkuntza publikoari baliabide gutxiago eskaintzea”. Zabaleko Eskola jarri du horren adibide: “11 aurrematrikulazioarekin, 2 urteko eta 3 urteko gela bana izan ahal genituen. Orain, 10 matrikulazioe-

erreportajea

kin, bi gelatan bildu behar ditugu haur guztiak. Irakasle eta aukera gutxiago izatea dakar horrek”. Gainera, nabarmendu du horrelako arazoak “urtero” gertatzen direla. “Iaz Mendiko Eskolan lerro bat kendu zuten da eta aurten Aretako Eskolarekin egiten saiatu dira”.

Gauzak hala, aldarrikatu dute hezkuntza sistema duala (ikastetxe publiko eta itunpekoak barne hartzen dituen) berez segregatzailea dela, eta sistema publiko indartsu baten beharra jarri dute mahai gainean. “Jaiotza tasaren jaitziera etengabea dagoen honetan, itunpekoa eta publikoa borrokan gaude ume gehiago norik lortu. Umeak kromoak bailiran aldatzen dira, eta hori ezin da horrela izan. Estrategia politiko hauekin publikoa ahultzen joango da, eta eskola publiko txikiak izango dira erortzen lehenak”.

Eskola publiko txikien balioa

Denbora luzez aritu dira Zabaleko eta Lamuzako bi gurasoak segregazioaz hitz egiten, eta gaiari buelta eman behar zaiola aldarrikatu dute. “Lamuzaren kasuan, kanpotik dagoen irudia da oso eskola segregatua dela, baina gu egunerokotasunean ez gara horrela sentitzen, kontrakoa baizik. Askotan jartzen da balioan kulturartekotasuna, baina kulturartekotasuna benetan balioan jartzeko bizi egin

“Hezkuntza Sailaren zaurgarritasun indiziea arrazista eta klasista da”

“Banatu ditzakegu eskolak batzuetan migranteak egoteko eta beste batzuetan ez. Baina, gero, zure seme-alabek pertsona migranteekin egingo dute topo gizartean”

behar da”. Ildo horretan, argi du Lamuza ghetto bat baldin bada, edozein itunpeko ikastetxe ere ghetto kontsideratu ahalko litzatekeela. “Baina Itunpekoak inori ez dio axola eta inori ez dio molestatzeko, baina gureak, aldiz, bai. Horregatik, egin beharko litzatekeen lehen gauza hona etorri eta ditugun beharrei buruz galdetzea izango litzateke”.

Arazoak arazo, Garmendiak argi du ez lukeela bere alaba beste inon matrikulatuko. “Gure ratioa oso aproposa dela uste dugu, oso eskola familiarra da. Eskola publiko txikiak, ratio txikia dutenek, hobeto bermatzen dute kalitatezko hezkuntza ematea. Zuzendaritza taldeak ume eta familia guztiak ezagutzen ditu, adibidez”.

Horrekin bat egiten du Miguelezek: “Familia eta haur batzuek (aniztasun funtzionala dutenek, adibidez) babes berezia behar dute, eta mota horretako eskolek bermatzen dute. Nire alaba da kasu horietako bat. Bera ezin da egon 30 lagunekoa gela batean, baina Zabalekon oso ondo moldatzen da”.

Horri lotuta, bi gurasoek aldarrikatu dute eskola barruan bizi den errealitateak bat egiten duela gero haurrek kanpoan topatuko dutenarekin. Hala dio Miguelezek: “Banatu ditzakegu eskolak batzuetan migranteak egoteko eta beste

“Eskola publiko txikiak, ratio txikia dutenek, hobeto bermatzen dute kalitatezko hezkuntza bat ematea”

batzuetan ez. Baina, gero, zure seme-alabek pertsona migranteekin egingo dute topo gizartean. Horregatik nahi dugu eskola publiko eta bakarra, ez ditugulako ikasgaiak soilik ikasi behar, baita elkarbizitza ere”.

Garmendiarentzat, aldiz, “oso aberasgarria” izan da bere alabak Lamuzan igaro dituen urteetan berak, ama moduan, bizi izan duen gutzia. “Ni hemen konturatu naiz arrazista naizela, eta arrazakeria hori deseraikitzen ikasteko balio izan dit horrek”.

Euskara hizpide

Euskarak bi hezkuntza zentroetan duen presentzia galdetuta, argi mintzatu dira bi gurasoak: etorkin gehiago egoteak ez du euskararen presentzia kaltetzen. “Nire ikuspuntutik, egoera beste toki batzuetan bezalakoa da, ez dut ezberdintasunik ikusten”, ziurtatu du Garmendiak. “Umeek batzuetan euskaraz hitz egiten dute eta beste batzuetan ez. Ez dut uste hemen aparteko arazorik dugunik. Esan behar diegu klasetik kanpo euskaraz hitz egiteko, baina beste toki batzuetan bezala”. Horrekin bat egiten du Miguelezek, eta aldarrikatu du hezkuntza publikoa dela gehien euskalduntzen duena. “Hala diote txostenek”.

Mobilizazioa ostiralean

Etorkizunera begira, ezkor agertu dira bi amak, hurrengo urteak “oso latzak” izango direla iritzita, egoera “berdina edo txarragoa” izango delako. Uste dute Jaurilaritzak hezkuntza publikoa ahultzen jarraituko duela, “hondarrak” soilik uzteraino, eta eskola txikiak itxi egingo dituztela, ikasle guztiak “makrozentroetan” pilatzeko.

Gauzak hala, ostiral honetako (apirilak 21) deialdia zabaldu dute Garmendiak eta Miguelezek. Manifestazio zaratsua egingo dute 18:00etan Lamuza Ikastetxetik abiatuta, *Aiaraldeko hezkuntza publikoa bizirik!* lemapean.

Eskualdeko hezkuntza zentro publikoek eta bertako guraso elkarrekin deitu dute mobilizazioa, eta herritar guztiei luzatu diete bertaratzeko gonbita. Hala dio Miguelezek: “Nik gonbidatuko nituzke familia guztiak bertaratzera, osasun sistema defendatzen duten moduan, hezkuntza publikoa ere defendatzen, oinarrian dagoena gauza berdina delako”. Antzeko hitzekin amaitu du Garmendiak ere: “Ez da bi aldeko kontu bat. Bakoitzak izango ditu bere arazoak eskola batera edo bestera joateko, horretan ez gara sartzen. Baina zerbitzu publikoa defendatzea uste dugu guztion ardura dela”.



kultura



Burubio Elkartea: zuzeneko musikaren arnasmune

Zazpi urte beteko ditu Amurrioko Burubio Elkarteak, eta orain arteko ibilbidea ospatzeko, zuzeneko kontzertuak antolatu ditu ostiralerako: Mocker's, Moonshine Wagon eta The Pushermen. Burubio berrogei musika talde baino gehiagoren aterpe izan da zazpi urte hauetan, eta bertako kideek zuzeneko musikaren garrantzia azpimarratu dute.



Testua eta argazkiak
**Aimar
Gutierrez Bidarte**

Zazpigarren urteurrena ospatuko du Amurrioko Burubio Elkarteak ostiralean -apirilak 21-, eta, horretarako, zuzeneko kontzertuak antolatu dituzte: Mocker's, Moonshine Wagon eta The Pushermen egongo dira oholza astintzen. "Rock talde bat, Blue Grass talde bat eta bertsoak egiten dituen beste talde bat ekarriko ditugu urteurrenera, urte guzti hauetan izandako musika aniz-

tasuna egun bakar batean eszenatoki gainetik ere islatzeko". Pandemiak eta neurri murriztaileak tarteko, 2019an antolatutako hirugarren urteurrena izan da Amurrioko aretoan ospatu duten azken efemeridea. "Pandemiaren eraginez ez genuen bosgarren eta seigarren urteurrena ospatu. Iaz otsailen kendu zituzten neurri murriztaileak baina ezjakintasuna zen nagusi eta seigarrena ez ospatzea erabaki genuen".

Zazpi urte eta aurrera
Entsegu-lokal batzuk bizi-

rik mantentzeko beharretik sortu zen 2016an Burubio Elkartea. "Lokalak mantentzeko pabilioia osorik alokatzeko aukera eskaini ziguten. Lokalak ekonomiko mantendu ahal izateko, zerbait zabalagoa sortzea erabaki genuen, areto bat, alegia. Hortik abiatuta, musika-ikastaroak, zuzeneko kontzertuak edota grabaketa estudio zerbitzuak eskaintzen hasi ginen, bideragarritasun ekonomikoari eusteko", azaldu du Saguk.

Entsegu-lokaletatik berrogei talde baino gehiago igaro

"Musika sorkuntza handia egon da urte hauetan guztietan Burubio barruan"

dira azken zazpi urte hauetan. Ibilbide luzeagoarekin batzuk, eta motzagoarekin besteak; jendaurrean kontzertuak eskaini dituztenak, edota lokal barruan jotzera mugatu direnak. "Musika sorkuntza handia egon da urte hauetan guztietan Burubio barruan", azpimarratu du Egotxok. "Badira ere bere instrumentua modu indibidualan jotzera etortzen diren pertsonak", gaineratu du Saguk.

Batzuk zerrendatzearen; Izate Faltsua, Nakkiga, 4Bancos, Gwaya Reggae edota Perdido ente ilusiones dira Buru-

bioko adreiluen artean musika sortu duten taldeetako batzuk.

Aiaraldetik kanpoko musika talde askok eta askok ere Burubiora jo dute entseatu edo zuzenean jotzeko asmoz, horien artean ezagunenak Mungiako Pi L.T. taldea eta duela hilabete gutxi azken bira prestatzen Burubion aritu zen Zea Mays. Erromeria askok ere Burubion prestatzen dituzte gerora plazaz plaza eskaintzen dituzten zuzenekoak. “Gertuko harremana eskaintzen diegu talde horiei guztiei, eta etxean bezala sentitzen dira emen. Lokalean bezala egotea da eurentzat baina eszenatoki handi batetik probatu dezakete zuzenekoaren errepertorioa, argiak...”, azaldu dute Burubioko kideek.

Bazkideak dira Burbio Elkar-

“Zuzeneko musikaren eskaintza oso handia da, baina publiko falta dago, aretoak ez dira betetzen”

tearen oinarri nagusietako bat. “Gaur egun 70 bat bazkide ditugu eta euren ekarpen handiena ekonomikoa da, proiektuaren biziraupena bermatu ahal izateko. Elkarrearekiko ekarpen horren truk bazkideek deskontuak dituzte urteko kontzertu guztietan”.

Publikoaren beharra

Euskal Herriko musika talde askoren erreferente bilakatu da Burubio azken zazpi urteetan egindako ibilbide oparoari esker. “Eskaintza erakargarria da Burubiokoa musika talde askorentzat. Elkarre batek kudeatzen du aretoa, eta horrek gastuak asko murrizten ditu: boluntarioak gara guztiak, ez da alokairurik ordaintzen... Baina teknikoki azpiegitura profesio-

nala da”, laburbildu du Ismak.

Halaber, gainerako aretoek bezala, publikoaren gabezia nabari dute Amurrion ere. “Zuzeneko musikaren eskaintza oso handia da, baina publiko falta dago, aretoak ez dira betetzen. Joera orokortua da areto guztietan publikoa jaisten ari dela”, azpimarratu du Sarguk. Argi dute, ordea, arrazoia ez dela programatutako musika estiloengatik: “Ohitura falta dago zuzenekoetaz gozatzeko, kontsumo ereduak asko aldatu dira, eta plataforma digitalak dira orain nagusi”. Belaunaldi gazteen ausentzia sumatzen dute:

“Kontzertuetara betiko jendea joaten gara, baina geroz eta eskaintza zabalagoa da, eta ez dago eskaintza hori beteko due-

nik”. Zuzeneko musikaren aldeko apustuan berresten dira Burubioko kideak. “Zuzeneko musikak jotzen ari denaren eta entzuten ari denaren arteko lotura zuzena da, beste ezerk ez ez dizu lotura hori transmititzen”. Pandemian ikusitakoaren ostean, gainera, are gehiago egin dute aurrez aurre komunikatzeko beharraren alde.

Aurrera begira, ostiral honetako kontzertuetaz haratago, maiatzean post-rock kontzertuak antolatu dituzte; RO eta Le Temps Du Loup arituko dira aretoko oholtza astintzen. Udatik bueltan ere, programazio indartsua iragarri dute. Herriarrei bertaratzeko deia luzatu diete: “zuzeneko musikak eta kulturak publikoaren beharra du”.



elkarlan  asesores

2022
Errenta-aitorpena.

www.elkarlanasesoria.com

Zure aitortpena esku onetan
30 urte enpresei eta partikularrei
aholkularitza fiskala ematen

Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

kultura

“Emozio handiz daukagu gordeta grabatutako lanaren sekretua”



SANDRA VARGAS LAZTANA LAZTANA PROIEKTUAREN SUSTATZAILEA DA, **KARLA VELARDE ETA JORGE LARRAKOETXEA** MUSIKARIEN LAGUNTZAREKIN. LASTER PLAZARATUKO DUTE LEHENENGO ESTUDIOKO LANAZ MINTZATU DIRA.



Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Nondik abaitzen da Laztana Laztana proiektua?

Sandra Vargas: Ni bakarlari bezala aritzen nintzen lehen, Sandra Cris izen artistikoarekin. Aurten eman dut proiektu berrira jauzia, Laztana Laztanarekin. Izan ere, zerbait osatuagoa egin nahi nuen. Orain ere bakarlari bezala aritzen naiz, baina nirekin dauden musikariak oso garrantzitsuak dira, nire abestietan laguntzeaz gain, lagun onak ere badirelako.

Zu zara bidelagun horietako bat Karla. Nola batu zinen proiektura?

Karla Velarde: Nik Sandra uni-bertsitatean ezagutu nuen, biak gara psikologia ikasleak. Ezagutu bezain pronto ikusi genuen lotura musikal estu bat geneukala, biok modu berdinean ulertzen genuen nolako izan behar-ko lukeen musika heziketa. Berarekin batera biolina jotzeko aukera sortu zitzaidanean segituan esan nuen baietz.

S.V.: Argitu beharra dago bai Karlak eta baita nik ere kontserbatoriorioan ikasi dugula. Heziketa musikal hori jasotzen duzunean, zenbait pentsamendu garatzen dituzu, eta horiek komunean ditugu.

K.V.: Biok ikasi dugu arlo klasikoan, eta hori musika egiteko oso oinarri garrantzitsu eta polita da. Musika ikasketak bukatzerakoan, ordea, zerbait berria egitea adostu dugu, musika klasikoaren ezagutza horietatik abiatuta, baina beste zerbait sortzea helburu.

Zer elementuk osatzen dute Laztana Laztana proiektua?

K.V.: Sandrak ahotsa jartzen du, proiektuaren ardatz nagusia da hori. Nik biolina jotzen dut, eta piano ikasketak txiki batzuk egin nituen ere. Jorge da gure azken fitxajea. Berak gitarra jotzen du, eta akustikoan aritzen ez garenean sintetizadoreekin eta beste tramankulu batzuekin aritzen da.

Nola batu zen Jorge proiektura?

S.V.: Karla eta ni folk kanpaleku batera joaten gara urtean behin, eta Jorge bertara doan gure lagun baten bikotekidea da. Mexikarra da jatorriz, eta euskera ikasten ari da uneotan.

K.V.: Broma batetik abiatuta batu zen Jorge taldera. Txantxe-

tan galdetu genion ea gure Dj-izan nahi zuen. Gero hasi ginen berarekin lan egiten eta ikusi genuen fenomeno bat zela!

Ibilbide laburra du proiektuak, baina bide oparoa egin du honezkero. Durangoko Abesti Feministen V. Jaialdian saria jaso zenuten.

S.V.: Hirugarren aldia izan da Durangoko lehiaketan parte hartzen nuena, Laztana Laztana bezala lehenengo. Ondo ezagutzen nuen ekitaldia. Oso lehiaketa polita da, emakumeak garaia gehienak. Musikari berriak ezagutzeko eta abesti originalak entzuteko aukera eskaintzen du.

K.V.: Aurreko urteetan ikusle bezala egon naiz bertan. Oso ekimen polita da, komunitatea sortzeko balio du. Laztana Laztana bezala aurkeztuta irabazi badugu, nik uste seinale ona dela, bide oparoa dugu aurretik.

Sua abestia da orain arte kaleratu duzuen bakarra. Zer kontatu ahal duzue abestiaren inguruan?

S.V.: Sua da kaleratutako abesti bakarra bai, plataforma guztietan dago honezkero entzungai. Durangoko Abesti Feministen Lehiaketan beste bi kanta plazaratu genituen, eta horiek ere oso harrera ona izan zuten.

Sua pasioari buruzko kanta bat da. Pasioa egiten duzunarekin, sentitzen duzunarekin... Zure buruarekin nahi duzuna egitea zen transmititu nahi nuen mezua: egin nahi duzuna, pasioarekin eta disfrutatuz.

Zer nolako garrantzia dute hitzek Laztana Laztana proiektuaren kantetan?

S.V.: Galdera ona. Nik uste dut nire hitzek garrantzia handia dutela. Mezu garrantzitsuak transmititu nahi ditut Laztana Laztanaren bidez.

K.V.: Euskarazko proiektua izatea ere bada mezu garrantzitsu horiei beste pisu bat emateko. Hizkuntza gutxitu batean transmititu arren, euskara ulertzen dutenentzat zein ulertzen ez dutenentzat ere, proiektu polita dela uste dut. Estilo berezia du Sandrak; oso eklektikoa da eta leku desberdinetatik hartzen ditu doinuak. Musikalki ere asko transmititzen du.

Nola sortzen dira Laztana Laztanaren abestiak? Zein da sorkuntza prozesua?

S.V.: Bakarlaria naiz, eta etxean, logelan, zehakzi, dudan

estudio txiki batean ekoizten ditut nire abesti propioak. Lehenengo pausoa beti da gitarra hartzea eta akorde batzuk lotzen hastea. Gerora hasten naiz letra mamitzen.

K.V.: Sandra abesti berri batekin etortzen den aldiro, gu liluratuta geratzen gara. Bai Jorgek eta bai nik detaileetan erreparratzen dugu gero, eta saiatzeko gara gure aletxoak jartzen. Norberak daki hobekien nola uzartu bere instrumentua, eta nola atera ahalik eta probetxu gehien.

EP baten grabaketa amaitu berri duzue. Zer aurreratu dezakezue?

S.V.: Abestien maketak aurretik nituen prest, baina Sandra Cris atzean utzi eta Laztana Laztana proiektuari bultzada emateko ezinbetsekoa nuen lan profesional bat garatzea.

Udan grabatu genituen abestiak Gaua estudioan. Egun batzuk eman genituen estudio barruan.

“Estilo berezia du Sandrak; oso eklektikoa eta leku akotatik hartzen ditu doinuak”

Abesti berriak sortzeko aukera ere izan nuen; ez dira EP honetan argitaratuko baina laster plazaratzea espero dut ere. Bost abestik osatuko dute lehenengo EPa, eta orain singleak argitaratzen joango gara.

K.V.: Hamar egun eman genituen bertan, eta oso esperientzia polita izan zen. Gaua estudioa ikusgarria da, inspirazioa bakarrik etortzen da. Emozio handiz daukagu gordeta grabatutako lanaren sekretua.

S.V.: Nire aurreikuspena da urte amaierarako EPa argitaratuta egotea. Oso prozesu luzea izaten ari da. Hurrengo bideo-klipa grabatu dugu honezkero, beraz, aurki aurkeztuko dugu beste abesti bat.

Zuzenekoekin hasiko zarete aurki, ezta?

K.V.: Pijamada pare bat egin ditugu zuzenekoan nondik norakoak zehazteko (barreak).

S.V.: Apirilaren 21ean eskai-

“Durangoko Abesti Feministen Lehiaketan beste bi kanta plazaratu genituen, eta horiek ere oso harrera ona izan zuten”

niko dugu gure lehenengo kontzertua Loraldia Festibalean, Deustun. Ekainaren 24an Bilbo Rock aretoan arituko gara, eta uztailearen 9an Barakaldon.

K.V.: Aiaraldea Ekintzen Faktorian jotzea ere gustatuko litzaiguke!

Agurtu aurretik, azken galdera bat. Zergatik jarri zenion proiektuari Laztana Laztana izena?

S.V.: Galdera potoloa hau! Nire izena Sandra Cristina da, eta Sandra Cris izen artistikoa atzean uztea erabaki nuenean, izen konposatu baten bila jarri nintzen. Bi hitz nahi nituen, baina ez zitzaidan ezer okurrizten, harik eta egun batean nire amak bazkari batean gatza eskatu nionean “ai laztana laztana!” esan zidan arte. Une horretan argi ikusi nuen, Laztana Laztana izango zen nire izen artistiko berria; bi hitz, Hannah Montana bezala! (barreak)



Durangoko Abesti Feministen V. Lehiaketa irabazi zuen Laztana Laztana proiektuak, eta aurki ekingo die zuzenekoek. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

kultura

Belaunaldi baten oroitzapen eta mundu ikuskerak, liburu

Testua
Txabi Alvarado Bañares

140 orriko liburua plazaratu du Cosecha 48 elkarteak bere 25 urteko ibilbidea ospatu eta goraiatzeko. Astelehen eguerdian egin zuten argitalpenaren aurkezpena Laudioko Kultur Etxeko Arraño aretoan, eta gela bete egin zuten ekitaldira bertaratutako dozenaka lagunek. 1948. urtean jaiotako audioarrek osatzen dute Cosecha 48 taldea. 1998. urtean sortu zuten, modu "erabat espontaneoan", belaunaldi horretako kideek 50 urte bete zituztenean. Gauzak hala, urteurren bikoitza ospatzen ari dira aurten. Izan ere, 75 urte beteko dituzte elkarteko kideek.

Laudioko "dinamizazio kultural eta sozialean" lan egiten du elkarteak, eta horri erantzuten dio aurkeztu duten liburuak. Hainbat ar-

tikulu bildu dituzte argitalpenean, baina Jose Luis Navarrok idatzitakoa da mardulena. Ikerlari audioarrak 1948. urtean Laudio nolako zen azaldu du artikulu zabal batean, hainbat artxibategietatik eskuratutako argazkiez lagundurik. Navarrok hartu zuen hitza aurkezpenean, eta herriko historiaren hainbat pasadizo aletu zituen.

Cosecha 48 elkarteak eginko jarduerak ere bildu dituzte liburuan. Elkarteak urtero omentzen du audioar bat, eta omenaldi horietarako pretsatutako testuak gehitu dituzte lanean. Ardo katak, jardunaldi gastronomikoak, Berakatz Zoparen kofradiaren nondik norakoak edota eginko bidaia kulturalak ere txertatu dituzte. Bukatzeko, elkarteko kideen talde argazkiak sartu dituzte azken orrietan.

Margolanen erakusketa berria aurkeztu du Artziniegako Santxotena Museoak



stilo anitzeko 62 artisten 81 margolan bildu dituzte, eta ekainaren 1era arte egongo dira ikusgai. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Margolanen erakusketa berria jarri du abian Artziniegako Santxotena Tailer Museoak. Ibilbide artistikoa XX. eta XXI. mendeetan garatu duten Euskal Herriko zein nazioarteko 62 artisten 81 pieza bildu dituzte. Erakusketa ekainaren 1era arte egongo da ikusgai.

Teresa Lafragua museoko zuzendariak, bilduma osatzen duten margolanen balioa azpimarratu du. "Balio handiko propo-

samen artistikoa da, bai margolanen kantitateagatik, baita hauen kalitateagatik ere". Izan ere, Santxotena museoan dauden obren atzean dauden egile askok eta askok, nazioarteko errekonozimendua izateaz gain euren museo eta galeria propioak dituzte munduan zehar barreiatuta.

Javier Santxotenen obra eskultorikoarekin tartekatuta aurkeztu dute bilduma berria. Orotariko estiloak elkartu dituzte: pintura abstraktua, hiper errea-

lismoa edota inpresionismoa. Artziniegako margolarien lanak ere batu dituzte sorta berrira: Jose Maria Pinto, Alejandro Quincoces eta Fernando Ureta.

Lafraguak azpimarratu egin du museoa eta obra landa-eremuan kokatuta egoteak duen garrantzia: "Periferietan kokatuta gauden museoek hirietakoak baino askoz laguntza gutxiago jasotzen dugu, baina gure eskaintza beste edozein museorena bezain aberatsa da".

Arabako Literatura Saria jaso du Mikel Ayllonek, 'Elur beltza' kontakizunarekin

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Apirilaren 13an jaso zuen aitortza Mikel Ayllonek Ignacio Aldekoa Sarien 43. edizioan. Gasteizko Kultura Etxean egin zen sari banaketa, Arabako Foru Aldundiaren eskutik.

Erakundeak *Elur beltza* lana saritu du eta, ipuina argitaratu ez ezik, 6.000 euro ere emango dizkio Aylloni. Ez da lehen aldian audioarrak horrelako aitortza bat jasotzen duena, besteak beste,

Igartza Sariaren irabazlea izan baitzen 2013an *Ez tiro egin anbulantziei* eleberriari esker.

Arabako Literatura Sariaren gailan parte hartu zuten Cristina Gonzalez bigarren diputatu nagusiordeak, Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuak, Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko diputatuak, eta Arabako erakundeetako eta kulturaren arloko beste ordezkari batzuek, gainerako aitortuekin batera (Marcelo Donadello, Jose Ignacio Lo-

pez Hernandez eta Oskar Gaztelu Bilbao).

"Helsinki elurtuan" girotuta dago kontakizun laburra, Ayllonen hitzetan. "Denok noizbait izan dugun ihes egiteko eta mundutik desagertzeko desio ezkutuaren inguruan hitz egiten du", azaldu du idazleak.

Datorren astelehenean aurkeztuko du sortzaile audioarrak bere liburu berria, Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean, 19:00etan.

Balbea

IÑAKI ZIARRUSTAREN 4. BAKARRIZKETA
NABIGATZEA DA GARRANTZITSUA, BIZITZEA EZ
ATX TEATROA

Maiatzak

7

IGANDEA

18:00

Faktoriako bazkideak 5€
Ez bazkideak 6€
WWW.FAKTORIA.EUS

KULTURA

 www.faktoria.eus
 faktoria@aiaraldea.eus
 948 647 942
 Errotari Kalea 4-6, Laudio (Araba)

Futbol Kanpusa antolatu dute Amurrioko Kaskagorri eta Etorkizuna futbol taldeko kideek, udalerrian futbola eta aisialdia sustatzeko asmoarekin. Besteak beste, emakumezkoen futbolari bultzada ematea izan dute helburu. Ekimenaren balorazio oso positiboa egin dute.

Futbol Kanpusaren balorazio “oso positiboa” egin dute Etorkizuna eta Kaskagorri taldeetako kideek



Kaskagorri eta Etorkizunak elkarlanean antolatu dute kanpusa. Chris GDPhoto

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Aste Santuko Futbol Kanpusa antolatu dute aurten, urteetako hutsunearen ostean, Amurrioko Etorkizuna eta Kaskagorri Futbol Taldeek elkarlanean. Lehen, udan baino ez zen antolatzen kanpusa. Iaz Aste Santuko oportetatean ere antolatu zuten; baina, orduko, hartan enpresa pribatu batek kudeatu zuen, udalerriko futbol taldeen ordez.

Pazko asteko lau egunetan antolatu dute aurtengo kanpusa, Amurrioko Refor kirol-gunean. “Futbol kanpusa deitu diogu baina, ez genuen futbolera mugatu nahi bakarrik” azaldu du Aitor Llanok Etorkizuna Futbol taldeko koordinatzaileak.

“Bi zatitan banatu dugu egu-

na: hamaiketakoaren aurretik futbol ariketa desberdinak egin izan ditugu, eta horren ostean bestelako ekintza ludikoak egin ditugu”.

Oso positibotzat jo dute talde antolatzailleek kanpusak izandako harrera eta ohiartzuna. “Jasotako erantzuna esperotakoa baino handiagoa izan da; 70 neska-mutilek eman dute izena, 2017 eta 2010 urteen artean jaio-takoak”. Amurriokoak ez ezik, Luiaondo eta inguruko beste herrietatik ere bertaratu dira haurrak.

“Futbolaren bitartez hainbat balio transmititu nahi geituen: kiroltasunez jokatzeko, disfrutatzea, taldean aritzeko jarraera egokia izatea... eta lortu egin dugula esan dezakegu”. Horrez gain, emakumezkoen futbola

“Badakigu neska gazte asko daudela futbola praktikatzeko interesatuta, eta guk euren beharrei erantzun eta egokitu beharra daukagu”

ere jarri nahi izan dute kanpusaren erdigunean: “Neska ugari apuntatu dira, eta begirale lanetan ere neska asko ibili dira”.

Bisita bereziak

Ekintza desberdinen artean bisita berezi bat edo beste jasotzeko parada ere izan dute kanpusean parte hartu duten haurrek.

Aingeru Olabarrietaren bisita jasozuten aurrena. Olabarrietak Athleticen gazteen ohorezko mailan jokatzeko du eta Espainiako Selekzioarekin ere aritu da. “Hezkuntzaren eta ikastearren garrantzia transmititu zien Olabarrietak. Norbera nondik datorren gogoratzeak duen inportantiaz ere mintzatu zitzairen haurrei”, azaldu du Aitor Llanok.

Leire Egia izan da kanpusean jaso duten beste luxuzko gon-

bidatu bat. Egia Athleticen emakumezkoen taldean ari da goi-mailan jokatzeko. Llanoren hitzetan “neska kirolarietara aurrera egiteko bultzada eta animoak transmititu zizkien Leire Egia”.

Aurrera jarraitzeko gogoa

Kanpusak izandako harrera ikusita udan errepikatze gogoz dira Etorkizuna eta Kaskagorri taldeetako kideak: “Etorkizunari begira oso garrantzitsua ikusten dugu herrian horrelako ekimenak sustatzea”.

Etorkizuneko erronkekin jarraituz, emakumezkoen futbola sustatzeko beharra azpimarratu du Aitor Llanok: “Badakigu neska gazte asko daudela futbola praktikatzeko interesatuta, etagukeuren beharrei erantzun eta egokitu beharra daukagu”.

kirola

ATLETISMOA

Ekainaren 18an izango da '10K' Laudioko atletismo proba



Iazko probaren irudi bat. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Laudio Atletismo taldeak urtero antolatzen duen krosaren izen-ematea zabaldu du. Sare sozialetan eman du ekimenaren berri eta, iragarri duenez, 10 kilometroko zeharkaldiraapuntatzeko webgunea martxan dago jada. Hain zuzen, Kirolprobak ataria baliatuko dute horretarako.

Batetik, helduen maila egongo da eta, bestetik, umee-na. Alabaina, 16-35 urte artekoek A kategoria osatuko

dute, 36-45 urtekoek B, 46-55 bitartekoek C, 56-65 artekoek D, eta 66 urtetik gorakoek E.

Umeen lasterketa 300 metrokoa izango da 0-7 urtekoentzat, kilometro batekoa 8-11 urtekoentzat eta 2 kilometrokoa 12-15 urtekoentzat. 11:00etan aterako dira gazteak, 11:10ean 8-11 urtekoak eta 11:15ean txikienak.

Umeen kasuan, ez da izena aurrez eman behar, "egun berean apuntatu behar da". Aiaraldea Komunikabidea ekimenaren babeslea izango da, eta dortsal baten zozketa egingo du apirilaren 21ean.

BOLATOKIA

Luiaondoko eta Lendoñobeitiko bolatokietan eman diote segida Arabako Txapelketari



Lendoñobeitiko bolatokia. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Luiaondoko eta Lendoñobeitiko bolatokietan eman zioten segida Arabako Bola Txapelketari. Gizonezkoen sailkapenean Aitor Parrilla doa buru, 621 punturekin. Atzetik ditu Oscar Olabarrieta eta Carlos Olabarrieta, 612 eta 604 punturekin, hurrenez hurren. Gizonezkoen sailkapeneko lehenen-

go postuak ixten Iñaki Molinuevo dago, 599 punturekin. Emakumezkoen sailkapenean, aldiz, Bea Isasi dago lehenengo postuan, 594 punturekin. Estrella Alonso da bigarrena 561 punturekin. Puntu bakarreko aldearekin daude hurrengo postuetan Bego Perez eta Bea Miras, 530 eta 529 punturekin hurrenez hurren. Okondon hautsiko dute berdinketa.

MENDI LASTERKETAK

Euskal Mendizale Selekzioan aritu da Granadan Jon Durana Aiaramendiko korrikalaria

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Emaitza oparoak biltzen jarraitzen du Jon Durana eskualdeko mendi korrikariak. Iaz hirugarren postua lortu zuen Aiaramendiko lasterkariak Euskal Mendizale Federazioko Kopako kategoria absolutuan, eta aurtengo urtea emankor hasi du. Izan ere, Euskal Mendizale Federazioarekin ariko

da lehiatzen, erakundeak jakinarazi duenez. Hain zuzen, bost lasterkari onenen artean kokatu da aiaraldearra eta, berearekin batera, Hodei Samaniegok, Ibai Makazagak, Javi Goitiak eta Victor Bernedok osatuko dute Euskal Herriko boskotea.

Euskal Mendizale Federazioak sare sozialetan adierazi duenez, asteburuan jokatu dute Espainiako Txapelketa,

eta laugarren sailkatu dira bai gizonezkoen taldea eta baita emakumezkoena ere. "Espainiako Txapelketan Promesetan txapeldun. Laugarren postua kategoria absolutuetan, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan. Bakarka, Irati Zubizarretaren bosgarren postua nabarmendu nahi dugu eta, bereziki, Aitor Zunzunegik promesetan lortutako brontzea", azpimarratu dute.

2023KO

UDAKO ESKAINTZA

Naturaz eta euskaraz blai

- **TXANDAK**
 1. Ekainaren 26tik 30era
 2. Uztailaren 3tik 7ra
 3. Uztailaren 10tik 14ra
 4. Uztailaren 17tik 21ra
 5. Uztailaren 24tik 28ra
 6. Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra
 7. Abuztuaren 7tik 11ra
 8. Irailaren 4tik 8ra

- **TOKIA**
FAKTORIA n jaso eta itzuliko ditugu haurrak. Udaleku inguruko baso eta naturaguneetan garatuko ditugu.
- **ORDUTEGIA**
Astehenetik ostiralera: 9:00-13:30
- **ADINA**
2013-2020 urte bitartean jaioetako haurrak
- **PREZIOAK**
 - **ASTE BAT:**
Bazkideak 65 € // Ez bazkideak 75 €
 - **NAHI DITUZUEN BI ASTE:**
Bazkideak 110 € // Ez bazkideak 130 €
 - **NAHI DITUZUEN 4 ASTE:**
Bazkideak 200 € // Ez bazkideak 240 €

JANTOKI zerbitzua

Zuen haurra 16:00ak arte jasotzeko aukera izango duzue

- TOKIKO PRODUKTU eta PRODUKTU EKOLOGIKOEN eginiko bazkariak
- NON? Faktorian

• **ASTE BAKOITZEKO PREZIOA:**
BAZKIDEEK 45€ - EZ BAZKIDEEK 55€

• **EGUN BAT APUNTATU NAHI IZANEZ GERO:**
EGUNA BAZKIDEEK: 12€ - EZ BAZKIDEEK: 15€

IZEN EMATEA

- **INTERNET BIDEZ:**
www.labur.eus/faktoriaudalekuak2023
- **TELEFONOZ:**
693 85 53 12 (Aritz)
9:00etatik 13:00etara et
17:00etatik 20:00etara

• QR KODEAREN BITARTEZ

herriko plaza



Nerea

Zorionak Nerea!!!! Asko Maite zaituge!

Edorta eta Edorta Txiki



Alaitz

Zorionak Alaitz! Asko maite zaitugu! Besarkada estu bat!

Maite eta Miguel



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Maiatzaren 3an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

	2					8	
			5		2	7	3
	5			6		4	
		4				3	6
5	7	8				9	
6	9			2	8		4
8					7	2	
			2		3	6	5
	6					3	

OSO ZAILA

	3		7				6	
4					9		8	3
	7			2	3			5
6			4					
	5				2	6		7
		4	3		5			
	6		8		4	5	3	
		3	2	5				
5	4			3	7			9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Orozko Rock
Jaialdirako sarrera bikoitza zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Orozko Rock Jaialdirako sarrera bikoitz baten zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Apirilak 21, 15:00etan.

IRAKURKETA GUNEA

HORRELAKOA ZARA ZU...

Idazlea: Desirée Acevedo

Argitaletxea: Pabilo

Irakasle zuzendutako lana da, gidari diren eta maitasunetik hezitzen duten hezitzaile horientzako.

Hezitzaileak gauza asko dira, Ilargia, Eguzkia, kontrol dorrea, farola, itsas-argia, inurria, ortzadarra...



SENDABELARREK DAKITENA

Idazlea: Garbiñe Larrea Iturralde

Liburu honetan 45 sendabelarren inguruko informazioa jasoko du irakurleak. Ukenduak, tinturak, infusioak egiteko tresnak eta errezetak eskaintzen dizkigu idazleak. Gure osasunaren gainean ardura hartzeko eta ezagutza praktikoak jasotzeko liburu bikaina.



JOLAS GUNEA

HITZ JARIOA

ZER DA?

Taldean jolasteko joku bat da. Hitzak ahalik eta azkarren esateko joku bat. Jokuak hainbat karta ditu, kolore ezberdinetakoak eta bi aldeetatik margoztua. Alde batean irudi bat agertuko da, irudi horrek gai bat adieraziko digu. Beste aldean letrak ageruko dira.

Jolasaren helburua hitzak ahalik eta azkarren esatea izango da. Horretarako, karta guztiak mahaian jarriko ditugu irudia gorantz dutelarik eta lehenengo kartari buelta emango zaio.

Kartari buelta ematean letrak agertuko dira. Jokoa irabazteko letra horretatik hasten den gaiari lotutako hitz bat esan beharko da. Azkarrenak karta eramango du eta karta guztiak bukatzean karta gehien dituenak irabaziko du. Talde guztia blokeatzen bada karta hori kendu eta beste batekin hasi!



ORTZADARRA



OSAGAIAK:

- Olioa
- Xaboi urdina
- Eztia
- Pote bat
- Ura
- Alkohola
- Kolorantea

AZALPENA:

Likido mota batzuen dentsitatearekin jolasteko eskulana da hau. Jolastu, ikasi eta dekoratzeko elementu bat sortuko dute. Ortzadarrak hurrengo koloreak izango ditu. Morea, urdina, berdea, horia eta gorria

1. Botea hartu eta ondo garbitu. Behekaldean eztia bota. Eztiari kolorantea bota morea egiteko.
2. Kontu handiz ez nahasteko xaboa izuri botera.
3. Urari kolorante berdea bota eta nahasketan izuri astiro-astiro.
4. Olioia doa hurrengo.
5. Azkenik alkoholari, kolorante gorria bota eta botera bota.



KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Zirkua

Zirkua muntatu dugu, malabaristak, ekilibristak, hamaika gauza egiteko gai diren pertsonak... Haurrak pozik, begiratuak, estimatuak dituen zirkua. Sortu dugun zirkuan hurrei ez zaie ezer faltatuko, jolaserako aukera, ondo pasatzeko aukera, jateko aukera, garbitasunerako aukera, begiratuak eta maitatuak izateko aukera...

Sortu dugun zirkua ibiltaria da etxez etxe mugitzen da, etxe guztietan dago. Zirkua artista ugari ditu eta asko dira sortu dugun zirkuan artista izan nahi dutenak, edo berez badirenak.

Esku batean haur bat, bestean erratza bat eta ahoa-ekin sukaldatzen duten malabaristak ditugu. Karroa eskuan, korrika alde batetik bestera doazen ekilibristak. Pertsona indartsuak, haur bat, bi edo hiru beti gainean dituztenak, altzoan, besotan edo bizkarrean. Noski pailazoak ere baditugu, hurrei jolasak prestatzen eta barrea eragiten. Magoak ere baditugu, egunean zehar hurrek zikindu edo sakabanatutako gauzak hurrengo egunerako bere lekuan jartzen dituztenak

Zirkuko artista izan nahi baduzu, guraso izatea besterik ez duzu. Behin guraso izatean, berez etortzen zaizu artista lana. Baina, ez ahaztu, guraso bazara eta lan hori zuk hartzen ez baduzu edo zirkuko langilea ez zarenaren sentazioa baduzu, ondokoak edo ondokoek bikoitza hartuko duela/dutela artista lana.

Ikusten duzue lagunak, zaintzaren zirkua osatu dugu. Denok gonbidatu gaude zirkura, ez, ordea, prestatuta. Haurren dependentzia bortitzean, lana, aisialdia eta norberaren espazioa gehitu nahi izatea errealitate distopiko batean bizitzea bezalakoa da, zirku batean bizitzea. Pelikuletan eta liburuetan bakarrik ikusten den errealitatea da. Ez gaitzala engainatu ondoko artisten portaerak, askotan gu bezain larri daudela, disimulatzen duten arren.


Ongi etorri sortu dugun zirkura! Ongi etorri zaintzaren zirkuitura! Ongi etorri gure mundura!

Baietz Hamahiru!

Horra Maripurtzil eta Pelloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.



Handienetik txikienera



Ordena itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikieneri 8.

Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Denboraren dominoan




Bakoitzari berea


Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gaiza bakoitzari bere izena.



- LANBASA
- ORBANA
- ERRATZA
- XABOIA
- GARBIGAILUA
- ASTOA
- PERTZA
- ESKUILA
- PALA
- ESKULARRUAK
- XURGAGAILUA
- BELAKIA
- ZAPIA
- KONKETA
- LISABURDINA



SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera



Daiana López Ascheri

JAIOTERRIA
BUENOS AIRES (1989)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
**LAN EGITERA ETORRI ZEN LAUDIORA,
NEBAREKIN BATERA**

“Oso lagungarria izan zait Bi Hotsak abesbatza Laudio eta audioarrak ezagutzeko”

Nola iritsi zinen Argentinatik Laudiora?

Duela urtebete Bartzelonara etorri nintzen oportetan nire nebarekin, asko gustatu zitzaigun bertako bizimodua eta geratzea erabaki genuen. Nik, Argentinako lana mantendu nuen, laborategi berdinentzako lan eginez. Biomedikuntza ingeniaria naiz, eta ospitalez ospitale egiten dut lan, ebakuntzetan laguntzen, taupada-markagailuak programatzen. 2022ko azaroan Espainiako Estatu iparraldeko ospitalean lan egitera lekuladatu ninduen laborategiak. Nik ezagun bat neukan Laudion, Patxi. Segituan jarri nintzen berarekin harremanetan eta alokatzeko etxe bat topatu zigun nebari eta bioi.

Abestea da zure zaletasuna, eta Laudiora iritsi zinenetik Bi Hotsak abesbatzako kidea zara. Nola hurbildu zinen taldera?

Patxi nire salbatzailea izan zen zentzu guztietan. Bi Hotsakeko kidea da, eta berak aurkeztu zidan taldea. Asko gustatzen zait abestea, eta talde batean kantatzeko premia nuen. Izan ere, Argentinatik etorri nintzenetik ez nintzen kantuan aritu. Beatriz Zurimendi abesbatzako zuzendaria aurkeztu zidan, eta entsegu batera joan nintzen, taldea eta giroa ezagutzeko. Geroztik, taldeko kide bat gehiago naiz.

Gustura zaude abesbatzan?

Oso gustora! Jende izugarria ezagutu dut. Astean birritan egiten ditugu entseguak, eta otorduetan ere elkartzeko gara. Oso lagungarria izan zait Bihotsak Abesbatza Laudio eta audioarrak ezagutzeko. Datorren apirilaren 22an kontzertua eskainiko dugu, eta nik bakarlarri gisa arituko naiz. Oso emozionatuta nago horrekin.

Bi Hotsak abesbatzaren erre-

pertoriko hainbat abesti euskaraz dira. Oso hizkuntza ederra iruditu zait euskara. Aurretik ez nuen ezagutzen.

Gutxika ohitzen noa, hitz eta abesti berriak ikasten. Abesbatzako kideek asko lagundu naute abestien esanahia ulertzen, asko gustatzen zait.

Argentinan ere aritzen zinen kantuan?

Bai, Argentina Gospel Choir ize-neko talde batean aritzen nintzen. Talde handia zen, 150 abeslarirekin. Horrez gain, blues eta rock taldeetan ere aritu naiz kantuan.

Pentsatu duzu Euskal Herrian musika taldea osatzea?

Egoitz Uriarte musikari audioarrarekin elkartu niaz proiektu bat garatzeko asmoz. Momentuz has-tapenetan gaude, elkar nola ulertzen dugun ikusten. Baina nik uste sortuko dugula zerbait.

Zer iritzi duzu Laudioaren inguruan?

Asko gustatzen zait herria, bereziki kalean dagoen giroa: ekitaldiak, azokak, kontzertuak... Argentinan ez dira horrelakoak ikusten kalean. Eguneroko bizitza ez da erraza Argentinan, segurtasun falta handia dago eta egoera ekonomikoa oso konplikatua da.

Inguruan mendiak eta natura izatea ere asko gustatzen zait. Ni Buenos Airesekoa naiz, eta mendiren bat ikusteko 800 kilometro bidaiatu behar ditut han. Hemen edonora begiratuta ikusten duzu mendiren bat.

Zer duzu faltan Argentinatik?

Haragi erreka egitea gustatuko litzaidake. Prest dut barba-ko etxeko terrazan, baina beldur naiz auzokideak ez ote diren kexatuko. Argentinarra naiz, ezin diot haragi erreari uko egin (barreak).

ARGENTINA



DESKRIBAPENA

Amerikako hego-ekialdeko estatu federala da. 1816an Espainiar Inperiotik askatu eta independentzia eskuratu zuenetik, kontserbadoreen eta liberalen arteko eta aginpide militar eta zibilen arteko barne gatazka gogorrak bizi izan ditu. Bigarren Mundu Gerraz gero militarren diktadurapean egon zen, 1983ra arte.

AZALERA

2.780.400 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

46,04 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Gaztelania da hizkuntza ofiziala.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

